

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5067

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 9koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, 2012rako genero-berdintasunaren berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetz-erakundeentzako laguntzen deialdia egiten duena.

Genero-berdintasunaren ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetz-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuak (2008-12-09ko EHAA, 235 zk.) 10. artikuluan ezartzen duenez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez, laguntzen deialdia egingo da, eta, deialdi horrekin batera, honako hauek ere adieraziko dira: laguntzen zenbatekoa, eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epea, eta baremazio-irizpideak, formularioa eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta erakunde esleipendunaren arteko hitzarmenaren eredua. Halaber, Dekretuaren 9. artikulua ezartzen du kudeatzailea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia izango dela, eta 15. artikulua xedatzen du Garapenerako Lankidetzaren Agentziaren zuzendariak eskatutako laguntzak onartzea edo ukatzea ebatziko duela.

Hala ere, deialdia egiteko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta abiarazi ondoren (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen ekainaren 19ko 5/2008 Legea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua; eta Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duen azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua), eta ikusirik Jaurlaritzaren Lehendakaritzari esleitu zaiola garapenerako lankidetzaren arloa, eta lehendakaritza horrixeko atxiki zaiola Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia izeneko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa (EAEko administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretua bigarren aldiz aldatzeko Lehendakariaren urtarrilaren 18ko 6/2011 Dekretuaren lehenengo eta bigarren artikulua), Lehendakaritzako idazkari nagusiak egin behar du diru-laguntzen deialdi hau.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak erabakiko du nola kudeatu aipatutako laguntzak eta arlo honetan eman behar diren ebazpenak edo sinatuko diren hitzarmenak. Horretarako, bi lege-xedapen hauek beteko ditu: batetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 11.2 artikulua, eta bestetik, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 11.1 artikulua.

Bukatzeko, aipagarria da deialdi honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Artezkaritza Kontseiluaren oniritzia jaso zuela 2012ko urtarrilaren 13ko bilkuran. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia abian hasi zenez geroztik (310/2010 Dekretua, azaroaren 23koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia abiaraztea arautzen duena), Garapena eta Lankidetz-erakunde Sustatzeko Fondoaren Kudeaketa Batzordeak legez egiten zituen lanak Artezkaritza Kontseiluak hartu ditu bere gain (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 10. artikulua eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuaren 10. artikulua).

Horren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen helburua ondoko deialdia egitea da: azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaz arautu ekitatearen aldeko antolaketan, aldaketa-prozesuentzako laguntzetarako 2012rako deialdia, alegia; izan ere, dekretu horren bidez, arautu egiten baitira, genero-berdintasunaren ekitatearen aldeko antolaketan aldaketa-prozesuak sustatzeko, lankidetzaren erakundeentzako laguntzak.

2. artikulua.– Diru-hornidura.

Deialdi honen zuzkidura ekonomikoa 350.000 euroko zenbatekoa izango da guztira, eta lankidetzaren erakundeetara banatuko zaie genero-berdintasunaren ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko, gehienez ere 26.400 euroko laguntzetan.

Guztizko zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, eta laguntza horiek ebatzi aurretik Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz amaitu gabeko beste diru-iturririk dagoen ikusita. Hala gertatzen bada, EHAAn emango da horren berri, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariaren ebazpen bat argitaratuz.

3. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan, ebazpen honen V. eta VI. eranskinetan aurkeztutako eredu normalizatuen arabera, honako honetara zuzenduta:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
Nafarroa kalea, 2
01007 Vitoria-Gasteiz.

Eskabideekin batera, Ebazpen honen VIII. eranskinean agertutako dokumentazioa bidali beharko da.

Eskaerak aurkezteko, azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuan bildutako baldintza guztiak osoz eta esanbidez onartu beharko dira.

4. artikulua.– Lehiaketa-prozeduraren puntuazioa.

Azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskabideak, ebazpen honen I, II, III eta IV. eranskinetan finkatutako baremoen arabera baloratuko dira, eta erakunde esleipendunen hautaketa aipatu dekretuaren 2.1 eta/edo 14. artikuluetan jasotako aurreikuspenak aplikatuz egingo da.

5. artikulua.– Hitzarmena sinatzea.

Diru-laguntza onartu ondoren, onartutako diru-laguntzetarako hitzarmen bana sinatu beharko dute Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariak eta erakunde esleipendunak, VII. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan bildu gabeko guztirako genero-berdintasunaren ekitatearen aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzaren erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen azaroaren 25eko 197/2008 Dekretua aplikatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du; hala ere, bere aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Lehendakari izango den idazkari nagusiari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 9a.

Lehendakari izango den idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

I. ERANSKINA

PROZESUAK BIDERATUKO DITUEN KANPOKO PERTSONA FISIKO
EDO JURIDIKOAREN BAREMAZIO TAULA ⁽¹⁾

(1) Kontratazio-proposamena kanpoko aholkularitza-erakunde batena denean eta taula honetan zehazten diren irizpideak kontuan hartuz, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesua sustatzeko ardura zuzena duten erakunde horretako pertsona edo pertsonak barematuko dira

1.– ESPERIENTZIA (45 puntura arte):

a) Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak genero-diagnostikoak eta/edo Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planak egiten duen esperientzia. Genero-diagnostikoak, Erakunde bateko kide guztien, eta bertan nagusi diren harremanen eta iritzien berrikuste sistematikoaren partaidetza-prozesu gisa definitzen da, eta haren helburua erakunde horretan ikusten diren genero-desberdintasuneko modu partikularrak eta espezifikoak antzematea da. Berdintasun-planaren definizioa honako hau da: partaidetza-diagnostikoan antzemandako genero-desberdintasunak desagerrarazteko, mainstreaming-a garatzeko eta erakundeetan emakumeen ahalduntzea sustatzeko bultzatuko diren ikuspegia eta jardun-norabideak (gehienez 20 puntu):

1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak genero-diagnostiko bat baino gehiagotan eta emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Plan bat baino gehiagotan egile gisa parte hartu duela frogatzea(20 puntu).

2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Plan batean eta/edo gutxienez genero-diagnostiko batean egile gisa parte hartu duela frogatzea(10 puntu).

3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak genero-diagnostikotan edo emakumeen eta gizonen arteko Berdintasun Planetan egile gisa parte hartu duenik ez frogatzea (0 puntu).

b) Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak GGKEekin edota gizarte-erakundeekin izandako esperientzia (gehienez 15 puntu):

1.– Prozesua suspertuko duen pertsona fisikoak edo juridikoak GGKE batean, Genero Erreferente gisa kontratatua, gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea (15 puntu).

2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea, GGKE batean langile tekniko kontratatu gisa, eta erakunde horretan egondako denboraldian generoari buruzko barne-taldean edo antzeko taldeetan parte hartu duela frogatzea (10 puntu).

3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urte beteko esperientzia frogatzea GGKE batean langile tekniko kontratatu gisa (8 puntu).

4.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urtebeteko esperientzia frogatzea gizarte-erakundeetan langile tekniko kontratatu gisa (6 puntu).

5.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak gutxienez urte beteko esperientzia frogatzea GGKEetan edo gizarte-erakundeetan boluntario gisa (4 puntu).

6.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak GGKEetan edota gizarterakundeetan lan-esperientziarik ez frogatzea, ez ordaindutako lanetan ezta boluntario gisa ere (0 puntu).

c) Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeari dagokionez izandako esperientzia (gehienez 10 puntu):

1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeari dagokionez esperientzia duela frogatzea (gehienez 10 puntu).

2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak prozesu parte-hartzaileak dinamizatzeari dagokionez esperientziarik ez frogatzea (0 puntu).

2.– PRESTAKUNTZA (gehienez 45 puntu):

a) Kanpoko pertsona fisikoaren edo juridikoaren prestakuntza eta ezagutza garapenerako lankidetzan edota generoan eta garapenean (gehienez 20 puntu):

1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak garapenerako lankidetzan eta baita generoan eta garapenean ere graduondoko ikastaroak egin izana (20 puntu).

2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak aurretik aipatutako bi gaietako bati buruz graduondoko ikastaro bat egin duela eta gutxienez 100 orduko prestakuntza duela frogatzea (15 puntu).

3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak aurretik aipatutako bi gaietako bati buruz (garapenerako lankidetzan edo genero eta garapena) graduondoko ikastaro bat egin duela frogatzea (10 puntu).

4.– Kanpoko pertsona fisiko edo juridikoak aurretik aipatutako bi gaietako bati buruz gutxienez 100 orduko prestakuntza duela frogatzea (5 puntu).

5.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak aurretik aipatutako bi gaiei buruz ez frogatzea ez prestakuntzarik ezta ezagutzarik ere (0 puntu).

b) Kanpoko pertsona fisikoaren edo juridikoaren prestakuntza eta ezagutza emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaiari buruz (gehienez 15 puntu):

1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko graduondoko ikastaro bat egin duela frogatzea (15 puntu).

2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz gutxienez 100 orduko prestakuntza duela frogatzea (10 puntu).

3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz ezagutzarik ez frogatzea (0 puntu).

c) Kanpoko pertsona fisikoaren edo juridikoaren prestakuntza eta ezagutza partaidetza-metodologiei buruz eta partaidetza-prozesuen kudeaketari buruz (gehienez 10 puntu):

1.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak partaidetza-metodologiak erabiltzea eta partaidetza-prozesuak kudeatzea helburu duen graduondoko ikastaroa egina izatea (10 puntu).

2.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak partaidetza-metodologiari buruz eta partaidetza-prozesuen kudeaketari buruz gutxienez 100 orduko prestakuntza duela frogatzea (5 puntu).

3.– Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak partaidetza-metodologiari buruz eta partaidetza-prozesuen kudeaketari buruz ezagutzarik ez frogatzea (0 puntu).

3.– HOMOLOGAZIOA (gehienez 10 puntu):

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak emandako aholkularitza-homologazioa edukitzea.

a) Erakundeak edo pertsona fisikoak edo juridikoak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak emandako aholkularitza-homologazioa duela frogatzea (gehienez 10 puntu).

b) Kanpoko erakunde fisikoak edo juridikoak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak emandako aholkularitza-homologazioa ez edukitzea (0 puntu).

II. ERANSKINA

GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAMENDU ALDAKETAKO
PROZESU ESKAEREN BAREMAZIO-TAULA

1.– PARTAIDETZA METODOLOGIA (gehienez 60 puntu):

a) Erabili beharreko tekniken eta metodologiaren garapena (gehienez 15 puntu):

1.– Erabili beharreko ikerketa-teknikak behar bezala garatzea (gehienez 15 puntu).

2.– Erabili beharreko ikerketa-teknikak behar bezala ez garatzea (0 puntu).

b) Partaidetza-metodologiaren erabilera (gehienez 15 puntu. Irizpide baztertzaila):

1.– Partaidetza-metodologiak erabiltzea eta horien egokitasuna behar bezala argumentatzea genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako proze-suen diagnostikoak eta planak egiteko (gehienez 15 puntu).

2.– Partaidetza-metodologiak ez erabiltzea eta horien egokitasuna behar bezala ez argumentatzea (0 puntu, irizpide baztertzaila).

c) Partaidetza-maila handiaren bermea (gehienez 15 puntu. Irizpide baztertzaila):

1.– Prozesuan erakunde osoaren partaidetza-maila handia lortzeko jarraituko den metodologia behar bezala adieraztea (gehienez 15 puntu).

2.– Prozesuan partaidetza-maila handia lortzeko jarraituko den metodologia behar bezala ez adieraztea (0 puntu, irizpide baztertzaila).

d) Prozesuaren fase guztietako partaidetza (gehienez 15 puntu. Irizpide baztertzaila):

1.– Deskribatutako prozesuaren fase bakoitzean aurreikusitako partaidetza behar bezala adieraztea (gehienez 15 puntu).

2.– Prozesuaren fase bakoitzean aurreikusitako partaidetza behar bezala ez adieraztea (0 puntu, irizpide baztertzaila).

2.– PROPOSAMENAREN KOHERENTZIA ETA BIDERAGARRITASUNA (gehienez 40 puntu):

a) Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak (gehienez 15 puntu):

1.– Proposamenak, ondo deskribatzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak edukitzea eta horiek proposamena aurrera eramateko egokiak izatea (gehienez 15 puntu).

2.– Proposamena gauzatzeko deskribatzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak nahikoak ez izatea (0 puntu).

b) Genero-berdintasunaren diagnostikorako lan-plana (gehienez 15 puntu):

1.– Genero-berdintasunerako partaidetza-diagnostikoaren lan-plana definitzea eta plan horretan ondoren azaltzen diren erakundearen zortzi lan-arloei buruzko informazioa nola lortu zehaztea. Dagokion dekretuak araututako zortzi lan-arloak honako hauek dira: politikoa, berdintasunaren alde aurretik egindako lanaren ibilbidea, antolamendu-kultura, barruko lanen prozesuak, erabakiak hartzea, komunikazioa eta ikaskuntza, pertsonen kudeaketa eta jarrerak (gehienez 15 puntu).

2.– Aurreikusitako lan-plana behar bezala ez garatzea (0 puntu).

c) Kronograma (gehienez 10 puntu):

1.– Prozesu guztia aurrera eramateko ondo zehaztutako kronograma aurkeztea eta proposamenari egokitutakoa izatea (10 puntu).

2.– Prozesua aurrera eramateko, oro har zehaztutako kronograma aurkeztea (5 puntu).

3.– Kronogramarik ez aurkeztea (0 puntu).

III. ERANSKINA

BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKORAKO FINANTZAKETA
BAKARRIK ESKATZEN DUTEN PROPOSAMENEN GENERO-BERDINTASUNAREN
ALDEKO DIAGNOSTIKOAREN BAREMAZIO-TAULA

1.– EZARRITAKO ZORTZI ARLO TEMATIKOEI BURUZKO INFORMAZIOA (gehienez 60 puntu. Irizpide baztertzaila):

a) Aurkeztutako diagnostikoak modu sakonean aztertzea Dekretuak ezartzen dituen zortzi arloak (politikoa, berdintasunaren alde aurretik egindako lanaren ibilbidea, antolamendu-kultura, barruko lanen prozesuak, erabakiak hartzea, komunikazioa eta ikaskuntza, pertsonen kudeaketa eta jarrerak) (gehienez 60 puntu)

b) Aurkeztutako diagnostikoak zortzi lan-arloei buruz behar adina informazio ez ematea (0 puntu, irizpide baztertzaila).

2.– ERAKUNDEKO KIDEEN PARTAIDETZA (gehienez 20 puntu):

a) Diagnostikoa lantzeko prozesuan erakundeko kide gehienen partaidetza bermatzea (gehienez 20 puntu).

b) Diagnostikoa lantzeko prozesuan erakundeko kide gehienen partaidetza ez bermatzea (0 puntu).

3.– PARTAIDETZA-METODOLOGIEN ERABILERA (gehienez 20 puntu. Irizpide baztertzaila):

a) Diagnostikoa lantzeko prozesuan partaidetza-metodologiak erabili direla bermatzea (gehienez 20 puntu).

b) Diagnostikoa lantzeko prozesuan erakundeko kide gehienen partaidetza ez bermatzea (0 puntu. Irizpide baztertzaila).

IV. ERANSKINA

GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO EKINTZA PLAN ESTRATEGIKORAKO
FINANTZAKETA BAKARRIK ESKATZEN DUTEN PROPOSAMENEN BAREMAZIO-TAULA

1.– PARTAIDETZA METODOLOGIA (gehienez 60 puntu):

a) Erabili beharreko tekniken eta metodologiaren garapena (gehienez 15 puntu):

1.– Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren lantze-prozesuan erabili beharreko ikerketa-teknikak behar bezala garatzea (gehienez 15 puntu).

2.– Erabili beharreko ikerketa-teknikak behar bezala ez garatzea (0 puntu).

b) Partaidetza-metodologiaren erabilera (gehienez 15 puntu. Irizpide baztertzaila):

1.– Partaidetza-metodologiak erabiltzea eta horien egokitasuna behar bezala argumentatzea genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa egiteko (gehienez 15 puntu).

2.– Partaidetza-metodologiak ez erabiltzea eta horien egokitasuna behar bezala ez argumentatzea (0 puntu. Irizpide baztertzaila).

c) Partaidetza-maila handiaren bermea (gehienez 30 puntu. Irizpide baztertzaila).

1.– Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren lantze-prozesuan, metodologikoki behar bezala adieraztea nola mantenduko den genero-diagnostikoan parte hartu duten departamentuen eta antolamendu-egitura guztien partaidetza-maila (gehienez 30 puntu).

2.– Partaidetza-mailak nola mantendu behar bezala ez adieraztea (0 puntu. Irizpide baztertzaila).

2.– PROPOSAMENAREN KOHERENTZIA ETA BIDERAGARRITASUNA (gehienez 40 puntu):

a) Giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak (gehienez 15 puntu):

1.– Proposamenak, ondo deskribatzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak edukitzea eta horiek proposamena aurrera eramateko egokiak izatea (gehienez 15 puntu).

2.– Proposamena gauzatzeko deskribatzen diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak nahikoak ez izatea (0 puntu).

b) Ildo Estrategikoak (gehienez 15 puntu. Irizpide baztertzaila):

1.– Lan-proposamenak ondo zehaztea Dekretuak ezartzen dituen hiru ildo estrategikoetako ekintzak Planean jasotzea nola bermatu. Ildo horiek honako hauek dira: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea; emakumeen ahalduztea eta genero-ikuspegiaren mainstreaming-a edo integrazioa (gehienez 15 puntu).

2.– Hiru Ildo Estrategikoetako ekintzak Planean nola jasoko diren ez zehaztea (0 puntu. Irizpide baztertzaila).

c) Kronograma (gehienez 10 puntu):

1.– Prozesu guztia aurrera eramateko ondo zehaztutako kronograma aurkeztea eta proposamenari egokitutakoa izatea (10 puntu).

2.– Prozesua aurrera eramateko, oro har zehaztutako kronograma aurkeztea (5 puntu).

3.– Kronogramarik ez aurkeztea (0 puntu).

2012ko azaroaren 16a, ostirala

V. ERANSKINA

GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAMENDU ALDAKETAKO PROZESUAK
SUSTATZEKO LANKIDETZA-ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

(Generoko partaidetza-diagnostikorako eta berdintasunaren aldeko ekintza plan estrategikorako finantzaketa-eskabidea).

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK:

Erakunde eskatzailea (izen ofiziala):

Helbidea / Erakundearen egoitza:

Telefonoa/Faxa:

Helbide elektronikoa:

IFZ:

Ahalduna (Kargua):

Eskaeraren ardura bere gain hartzen duela adierazteko sinadura:

Eskabidearen pertsona arduraduna:

Eskabidearen pertsona arduradunaren telefono zenbakia:

IRAUNALDIA:

Aurreikusitako hasiera-data:

Aurreikusitako amaiera-data:

Gauzatzeko aldia, guztira (hilabeteak):

FINANTZIAZIOA:

Kostua guztira:

Genero-arloko partaidetza diagnostikoa bideratzeko zerbitzuen kostua:

Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa bideratzeko zerbitzuen kostua (prestakuntza-prozesutik eratorritako kostuak baldin badaude partida honetan sartu behar dira):

DINAMIZAZIO TALDEA:

Kanpoko dinamizatzailerik gisa proposaturiko pertsona edo erakundea:

Kanpoko dinamizatzailerik gisa proposaturiko pertsonaren edo erakundearen sinadura:

Erakunde eskatzailearen Genero Erreferente gisa izendatutako pertsona:

Erakunde Eskatzailearen Generoari buruzko Barne Taldea osatzen duten pertsonak:

1.– Justifikazioa eta aurreikusitako eragina.

1.1.– Ekimenaren aurrekarien deskribapena eta erakundeak aurretik genero-berdintasunaren arloan egindako lanaren deskribapena, hau da, antolaketa-eremuan, eremu estrategikoan eta teknikoan eta baita ere, emakumeen erakundeekin eta/edo mugimendu feministarekin egindako aliantzetan.

1.2.– Justifikazioa: genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuaren finantzaketa-eskabidea egiteko arrazoiak modu laburrean adieraztea.

1.3.– Erakundean prozesu-amaierarako lortzea espero diren helburuak eta aurrerapenak, aldeztatik, adieraztea.

2.– Partaidetza metodologia.

2.1.– Genero-arloko partaidetza-diagnostikoaren eta berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren lantze-prozesuan erabiliko diren metodologia eta ikerketa-teknikak azaltzea. Arreta berezia eskainiko zaio teknika horien partaidetza-izaera argumentatzeari.

2.2.– Aipatutako metodologiak erabiliz, prozesuaren fase guztietan erakundearen partaidetza-maila altua nola lortuko den justifikatzea. Erakundearen barruan prozesuaren partaidetzari buruz dauden konpromisoak azaltzea, termino kuantitatibo zein kualitatiboetan.

3.– Lan plangintza.

3.1.– Diagnostiko-fasean nola lortuko da Dekretuak zehaztutako zortzi arlo tematikoei buruzko informazioa (Politikoa, berdintasunaren alde aurretik egindako lanaren ibilbidea, antolamendu-kultura, barruko lanen prozesuak, erabakiak hartzea, komunikazioa eta ikaskuntza, pertsonen kudeaketa, jarrerak) ?

3.2.– Proposamena gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak zehaztea. Proposamenaren kudeaketa eta logistika azaldu.

3.3.– Kronograma: Partaidetza Diagnostikoaren eta Ekintza Planaren lantze-prozesuan aurreikusitako faseak eta ekintzak ahal den zehatzera deskribatu.

4.– Aurrekontu koadroa.

Partidak	Eusko Jaurlaritza
Zuzeneko kostuak:	
A.I.– Diagnostikoa bideratzeko zerbitzuak.	
A.II.– Plana bideratzeko zerbitzuak.	
Zeharkako kostuak:	
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak	
Zeharkako kostuak, guztira	
Guztizkoa, oro har	

5.– Jarraipen sistema.

Aurretik ezarritako helburuak prozesuan zehar betetzen direla bermatzeko aurreikusi diren jarraipen-mekanismoen adierazpena.

--

2012ko azaroaren 16a, ostirala

VI. ERANSKINA

GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAMENDU ALDAKETAKO PROZESUAK
SUSTATZEKO LANKIDETZA-ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA

(Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikorako finantzaketa-eskabidea).

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK:

Erakunde eskatzailea (izen ofiziala):

Helbidea / Erakundearen egoitza:

Telefonoa/ Faxe:

Helbide elektronikoa:

IFZ:

Ahalduna (Kargua):

Eskaeraren ardura bere gain hartzen duela adierazteko sinadura:

Eskabidearen pertsona arduraduna:

Eskabidearen pertsona arduradunaren telefono zenbakia:

IRAUNALDIA:

Aurreikusitako hasiera-data:

Aurreikusitako amaiera-data:

Gauzatzeko aldia, guztira (hilabeteak):

FINANTZIAZIOA:

Kostua guztira:

Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa bideratzeko zerbitzuen kostua (prestakuntza-prozesutik eratorritako kostuak baldin badaude partida honetan sartu behar dira):

DINAMIZAZIO TALDEA:

Kanpoko dinamizatzaille gisa proposaturiko pertsona edo erakundea:

Kanpoko dinamizatzaille gisa proposaturiko pertsonaren edo erakundearen sinadura:

Erakunde eskatzailearen Genero Erreferente gisa izendatutako pertsona:

Erakunde Eskatzailearen Generoari buruzko Barne Taldea osatzen duten pertsonak:

1.– Justifikazioa eta aurreikusitako eragina.

1.1.– Ekimenaren aurrekarien deskribapena eta erakundeak aurretik genero-berdintasunaren arloan egindako lanaren deskribapena, hau da, antolaketa-eremuan, eremu estrategikoan eta teknikoan eta baita ere, emakumeen erakundeekin eta/edo mugimendu feministarekin egindako aliantzetan.

1.2.– Justifikazioa: genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuaren finantzaketa-eskabidea egiteko arrazoiak modu laburrean adieraztea.

1.3.– Erakundean prozesu-amaierarako lortzea espero diren helburuak eta aurrerapenak, aldez aurretik, adieraztea.

2012ko azaroaren 16a, ostirala

2.– Genero arloko partaidetza diagnostikoa.

2.1.– Genero-arloko Partaidetza Diagnostikoan Dekretuak zehaztutako zortzi arlo tematikoei buruz azaltzen den informazio garrantzitsuena laburbilduta aurkeztea (Politikoa, berdintasunaren alde aurretik egindako lanaren ibilbidea, antolamendu-kultura, barruko lanen prozesuak, erabakiak hartzea, komunikazioa eta ikaskuntza, pertsonen kudeaketa, jarrerak).

2.2.– Zer metodologia erabili ziren diagnostiko hori egiteko? Arreta berezia jarri partaidetza-izaera duten metodologietan.

2.3.– Nola lortu ziren langileen partaidetza-kuota handiak diagnostikoaren lantze-prozesuan?

3.– Partaidetza metodologia.

3.1.– Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren lantze-prozesuan erabiliko diren metodologia eta ikerketa-teknikak azaltzea. Arreta berezia eskainiko zaio teknika horien partaidetza-izaera argumentatzeari.

3.2.– Aipatutako metodologia erabiliz, berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoaren lantze-prozesuan erakundearen partaidetza-kuota altua mantentzea nola lortuko den justifikatzea. Erakundearen barruan prozesuaren partaidetzari buruz dauden konpromisoak azaltzea, termino kuantitatibo zein kualitatiboetan.

4.– Lan plangintza.

4.1.– Nola bermatuko da aurreikusitako lan-plangintzaren bidez, Dekretuak zehazten dituen hiru lldo Estrategikotako genero-berdintasunaren aldeko ekintzak jasotzea? Hiru lldo horiek honako hauek dira: emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerraraztea, emakumeen ahalduntzea sustatzea eta erakundearen mainstreaming-a integratzea.

--

4.2.– Proposamena gauzatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko eta materialak zehaztea. Proposamenaren kudeaketa eta logistika azaldu.

--

4.3.– Kronograma: Partaidetza Diagnostikoaren eta Ekintza Planaren lantze-prozesuan aurreikusitako faseak eta ekintzak ahal den zehatzera deskribatu.

--

5.– Aurrekontu koadroa.

Partidak	Eusko Jaurlaritza
Zuzeneko kostuak:	
A.I.– Plana bideratzeko zerbitzuak	
Zeharkako kostuak:	
Erakunde eskatzailearen administrazio-gastuak	
Zeharkako kostuak, guztira	
Guztizkoa, oro har	

6.– Jarraipen-sistema.

Aurretik ezarritako helburuak prozesuan zehar betetzen direla bermatzeko aurreikusi diren jarraipen-mekanismoen adierazpena.

--

2012ko azaroaren 16a, ostirala

VII. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA BAKOITZERAKO, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIAK ETA ERAKUNDE ESLEIPENDUNAK SINATU BEHARREKO
HITZARMENA

Vitoria-Gasteiz, 2012koarena.

HONAKO HAUEK BILDU DIRA:

Batetik,, (hemendik aurrera erakunde esleipenduna deituko diogu), IFZ:, erakunderen ordezkaria:, erakunde esleipendunaren Lege Ordezkaria den aldetik, eta,

Bestetik,, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria. Honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

Elkarri aitortzen diotela ordezkaritza-ahalmena dutela, eta indarrekoztat jotzen dutela ahalmen hori, baita HITZARMEN hau sinatzeko behar besteko lege-ahalmena dutela ere. Hori guztia dela-eta, hitzarmena honako klausula hauen arabera gauzatzea erabaki dute:

KLAUSULAK:

Lehenengoa.– Hitzarmen honek XXZ-KKKKBA/XXXX erreferentzia duen genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuaren finantzaketa soilik hartzen du eraginpean.

Bigarrena.– Diru-laguntza genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuko bi faseetarako ematen bada, hau da Diagnostika eta Plana faseetarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak XXX euro ordainduko ditu, bi ordainketa eginez. Lehenengoa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 60koa, hitzarmena izenpetzen den unean. Bigarrena, diru-laguntzaren % 40koa, diru-laguntzaren % 40 gauzatu izanaren txostena eta egiaztagiriak aurkeztu ondoren. Prozesuaren onartutako aurrekontua, guztira, 350.000 eurokoa da.

Bigarrena.– Diru-laguntza genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuko jakineko fase baterako bada, hau da, genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa faserako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak XXX euro ordainduko ditu, hitzarmen hau izenpetzen den unean, diru-laguntzaren zenbateko osoaren ordainketa bakar bat eginda.

Hirugarrena.– Erakunde Esleipendunak honako betekizun hauek izango ditu:

- Hitzarmen hau eta indarrean dauden arauak, betiere genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzaren erakundeei bideratutako laguntzak arautzen dituen azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren arabera, bai eta diru-laguntzaren deialdia egiten duen 2012ko azaroaren 9ko Ebazpena ere.
- Jarraipen-informeak aurkeztuko ditu, azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 24. artikuluan ezartzen denaren arabera.

2012ko azaroaren 16a, ostirala

- Erakundeak, aurretik aipatutako Dekretu arautzailearen 23. artikuluan ezartzen denaren arabera, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari proiektua funtsean alda dezala eskatuko dio, honako aldaketa hauetakoren bat egin nahi izanez gero:
 - Kanpoko pertsona fisiko edo juridikoaren aldaketa.
 - Generoari buruzko Barne Taldearen osaera-aldaketak.
 - Erakundeak erreferente izendatutako pertsonaren aldaketa.
 - Erabiliko den metodologiaren aldaketa.
 - Prozesuaren luzapenak (prozesua gauzatzeko aurreikusitako epean izandako atzerapenak).
- Jarraipen-txostenetan gertatzen diren aldaketa ez-funtsezkoen berri emango du.

Laugarrena.- Erakunde esleipendunak XXXXXX banku-kontua (20 digituak adierazi behar ditu) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren diru-laguntza hau kudeatzeko kontu espezifiko gisa baliatuko du.

Bosgarrena.- Erakunde esleipendunak adierazi du prozesuaren benetako hasiera-data XXXX/XX/XX dela (benetako hasiera-data idatzi behar da). Data hori formulazio-eredukoa ez bada, hitzarmen hau sinatzen den egunekoa baino geroagokoa izan behar du, eta 2012ko abenduaren 31koa baino lehenagokoa.

Seigarrena.- Erakunde esleipendunak onartzen du finantzatutako prozesuak behin amaitu eta gero ebalua daitezkeela, azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 26. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ebaluazio hori Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak koordinatuko du, baina helburu horretarako kontratatutako kanpoko lantalde edo pertsona batek egingo du.

Eta bidezko ondorioetarako horrela jasota gera dadin, hitzarmen honen hasieran aipatutako lekuan eta egunean sinatzen du.

Garapenerako Agentzia:	Lankidetzaren	Euskal	Erakunde Esleipenduna:
Izp.: Garapenerako Agentziaren zuzendaria	Lankidetzaren	Euskal	Izp.: XXXXXXXXXX

VIII. ERANSKINA

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN ZERRENDA

	Erakunde eskatzailea:	
1.-	Estatutuen eta dagokion Erregistroan erregistratuta egotearen fotokopia eskuetsia, baita eskabidea aurkezten duenaren ahalordetzea ere (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6. a, b eta c, artikulua).	
2.-	FIZ txartelaren fotokopia eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6. e. artikulua).	
3.-	Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu izanaren zigorra jaso ez izanaren zinpeko adierazpena (ez zigor penalik ez administratiborik), dagokion zigorrak ezartzen duen aldian, eta horretarako ezgaitzen duen lege-debekurik jaso ez izanaren zinpeko adierazpena. Sexu-arrazoiengatik diskriminatzeagatik zigor administratibo edo penala betetzen ez egotea, ezta debeku horrekin zigortuta egotea ere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 legean ezarritakoari jarraiki (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6.d artikulua).	
4.-	Erakundearen antolamendu-egituraren dokumentua honako arlo hauetaz informazioa ematen duena: organigrama, gobernu modua, lan-prozesuak, etengabeko hobekuntzarako ekintzak eta pertsonen kudeaketa (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6.g artikulua).	
5.-	Erakunde eskatzaileak aurretik emakumearen alde eta/edo genero-berdintasunaren alde egindako lanaren azalpen-memoria (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6.h artikulua).	
6.-	Zinpeko edo erantzukizuneko aitorpena, erakunde eskatzaileak berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuaren fase guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen duela adieraziz, betiere parte hartzeko ezarritako metodologiari jarraiki. Bereziki aipatuko da finantzatutako prozesua Lankidetzarako Zuzendaritzak sustatutako kanpoko ebaluaketa-prozesuaren menpe egon daitekeela (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6.j artikulua).	
7.-	Erakundeko genero-erreferentea den pertsonaren izendapena jasotzen duen dokumentua, estatutuen arabera izendatutako ahaldunaren sinadurarekin (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6. artikulua).	
8.-	Generoari buruzko Barne Taldearen osaera jasotzen duen dokumentua, estatutuen arabera izendatutako ahaldunaren sinadurarekin (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6. artikulua).	
9.-	Memoria bat, bertan erreferentearen, Generoari buruzko Barne Taldearen eta prozesuan parte hartzen duen erakundeko langileen eginkizunen liberazio-sistema bat ezarriko da (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6. j. artikulua).	

2012ko azaroaren 16a, ostirala

10.-	Zinpeko edo erantzukizuneko aitortpena, erakunde eskatzaileak berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuan duen partaidetza argitara emateko konpromisoa hartzen duela adieraziz (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6. artikulua).	
11.-	Prozesuak irauten duen bitartean sortzen den dokumentazioan ez ezik egiten diren memoria eta txostenetan ere hizkuntza ez-sexistaren erabilera egiaztatzen duen dokumentua (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 6. artikulua).	
	Kanpoko pertsona fisikoa edo juridikoa:	
12.-	Kanpoko pertsona fisikoak edo juridikoak Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak antolatutako prestakuntza-prozesuan parte hartzeko konpromisoa eta borondatea duela jasotzen duen dokumentua (azaroaren 25eko 197/2008 Dekretuaren 2.1 artikulua).	
13.-	Kanpoko pertsona fisikoari edo juridikoari buruz honako dokumentazio hau: curriculuma eta I. eranskinean ezarritako baremazio-irizpideetan jasotako alderdiak frogatzeko behar diren dokumentuak.	
	Berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikorako erabateko finantzaketaren eskabidea:	
14.-	Erakunde eskatzailearen generoari buruzko partaidetza-diagnostikoaren kopia.	
15.-	Partaidetza-diagnostikoaren lantze-prozesuaren memoria zehatza, arreta berezia jarriz prozesuan erabilitako metodologian eta prozesuan izandako partaidetzan. Betiere, III. eranskinean ezarritako baremazio-irizpideen arabera.	